

Gure proiektua aurrera ateratzeko bilatuko ditugun bazkideak hainbat printzipio eta helburu zehatz batzuk izan behar dituzte. Lehenik eta behin, ingurumenaren babesaz arduratu behar dira, jasagarritasuna sustatuz. Interesa erakutsi behar dute bertako produktu ekologikoak ekoiztearen inguruan eta ingurumena ahalik eta gehien zaintzearen inguruan. Bigarrenik, bakardadeari aurre egiteko laguntza eskaintzeko prest dauden pertsonak izango dira. Katuetan eta arropa diseinuan interes minimo bat izan behar dute, horrela batera lan eginez gero produktu berriak eta ahalik eta originalagoak merkaturatzeko gai izango gara. Azkenik, gure helburua haztea denez, proiektuari potentzial handia ikusten dioten bazkideak eta inbertsoreak oso garrantzitsuak izango dira.

Hornitzaileei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatutako hainbat printzipio eta ezaugarriekin bat egin behar dute. Adibidez, Km0-ko produktu ekologikoak eskaini behar dituzte. Honetaz aparte, haien langileek lan-baldintza onak izan behar dituzte. Beste puntu garrantzitsu bat lehengaien prezioa eta entrega-epea onargarriak eta errespetatuak izan behar dira. Ez ditugu prezioen igoera zentzugabeak onartuko produktua ekologikoa izanagatik.

Hauek garrantzitsuak dira guretzat, batetik, derrigorrezkoak direlako gure produktuak ekoizti ahal izateko lehengaiak lortzeko eta bestetik, gure enpresaren politika betetzen dutelako.